



Bihotzez Elkarte: Sortzetiko kardiopatiak dituzten Euskal Herriko pertsonen eta beraien familia-kideen bizi kalitatea hobetzeko lan egiten duen irabazi asmorik gabeko elkarte.

09 BIHOTZEEZ Elkartearekin solasean.

Badira kreailera batzuk kamiseten azpitik doazenak, bularreko azalari josita, eta kreailera hauen barruan ia beti dago bihotz ibiltari bat, kirolanoko argiak zenbatu dituen, itxarongelen lautadak zapaldu dituen, xarabezko lakuetan egon dena, eta nekatutakoan, atsedendialdiak egiten dituen inurriei begira.

Bihotz ibiltariak kreailera barruan gordetzen dituzte ikasitako gauza guztiak, eta batez ere, bidea erraztu dieten lagunak.

Bihotzez Elkarteak ikusten ez den horri buruz hitz egiten du, azalaren azpiko bihotz desberdinez, azalaz haratagoko bizitza bereziaz.

Bihotzengatik, eta bihotzez.



10 ORBAINEN AZPIAN

Musika: Xabier Zabala

Hitzak: Nerea Ibarzabal Salegi

Ahotsa: Xabi Solano Maiza

Jarri esku bat bularrean
sumatzen al duzu barnean
tximeleta bat?

Bi hego, mingain kiribil...
zure behatzei muxuka dabil.

Mundu bat dut orbainen azpian.

Lorez betetako zelai bat biontzat,
hauxe eskatzen dit nire bihotzak.

Jarri burua bularrean
entzuten al duzu barnean
musikari bat?

Nota ozen, nota isil...
zuretzako vals bat jotzen dabil

Mundu bat dut orbainen azpian

Dantzatzeko pausu goxo bat biontzat,
hauxe eskatzen dit nire bihotzak.

Jarri begiak bularrean
ikusten al duzu barnean
itsas-argi bat?

Orain urrun, orain hurbil...
nire bidaia gidatzen dabil

Mundu bat dut orbainen azpian

Nik egunsentiak nahi ditut biontzat,
zer eskatzen dizu zure bihotzak?